



**ORIOK OUDALA**

**AKTA**

# Udalbatzarraren ezohiko bilkura

**EGUNA:** 2013ko abenduaren 19a, osteguna

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 20:00    **BUKATZEKO ORDUA:** 20:50

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Beñat Solaberrieta Albizu

**Zinegotziak**

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Angel del Hoyo Bravo, Jon Agirresarobe Lopetegi, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

**Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

Elena Etxeberria Sedano zinegotziak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri, gaixorik dagoelako, eta beraz, ez du bilkuran parte hartu.

Gai-zerrenda irakurtzen hasi aurretik, udalbatzarrak bi proposamen hauen berri jasotzen du:



1.- Alkatearen proposamena, udalbatzar honetako 5. gaia erretiratzeko, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak ez duelako dagokion diktamena eman eta, aldez aurretik, komeni delako gaia kontrastatzea Orioko merkatari eta tabernarien ordezkariekin.

2.- EAJ talde politikoaren proposamena, udalbatzar honetako 7. gaia erretiratzeko, gaiaren edukiarekin bat etorri arren, ez daudelako ados erabilitako moduarekin eta uste dutelako komeni zela, aldez aurretik, harreman gehiago izatea bi erakundeen artean (Orioko Udala eta Aiako Udala).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** alkatearen proposamena, udalbatzarraren gai-zerrendatik 5. gaia erretiratzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Kontrako botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI KONTRAKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ), guztira **BOST ALDEKO BOTO**]:

**EZ ONARTZEA** EAJren proposamena, udalbatzarraren gai-zerrendatik 7. gaia erretiratzeko.

Emandako botoa azaltzeko, Miriam Uranga lehen alkarteordeak hartzen du hitza, Orain talde politikoaren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela, 2013ko apirilaren 30eko udalbatzarrean azaldutako arrazoiagatik: aurrerantzean edozein udal talde politikok aurkeztutako edozein mozioren kontrako botoa emango dutela, uste dutelako mozioren gaiak batzorde informatzaileetan aztertu eta bideratu behar direla.

## Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2013ko urriaren 31ko eta azaroaren 28ko ohiko bilkuretako akten zirriborroak.
- 2.- Adjudikatzea, egoki bada, Karela kiroldegiaren kudeaketa integrala eta Arraunetxeren eta beste antzeko zerbitzu batzuen kudeaketa adjudikatzeko lehiaketa.



- 3.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketa, eragina 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 7/2013 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditua transferitzeko modalitatean egin dago.
- 5.- Onartzea, egoki bada, BILDU udal talde politikoak aurkeztutako mozioa, Sevilla II-ko espetxeko egoerari buruz.
- 6.- Onartzea, egoki bada, BILDU udal talde politikoak aurkeztutako proposamena, Aiako Udalari bideratuta, Danbolin Musika Eskolaren finantzazioari buruz.
- 7.- Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

### **1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2013KO URRIAREN 31KO ETA AZAROAREN 28KO OHIKO BILKURETAKO AKTEN ZIRRIBORROAK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** 2013ko urriaren 31ko eta azaroaren 28ko ohiko bilkuretako aktak.

### **2.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, KARELA KIROLDEGIAREN KUDEAKETA INTEGRALA ETA ARRAUNETXEREN ETA BESTE ANTZEKO ZERBITZU BATZUEN KUDEAKETA ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; Karela kiroldegiaren kudeaketa integrala eta Arraunetxeren eta beste antzeko zerbitzu batzuen kudeaketaren adjudikazioa lehiaketa bidez, prozedura irekiz eta ohiko tramitazioz egiteko iragarkia argitaratu zuen Udalak 2013ko azaroaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (211. zenbakia).

Lehiaketara proposamenak aurkezteko irekitako epean, lehiatzaile bakarra aurkeztu da:



## - BPXPORT KIROL ZERBITZUAK, SL

Kontratazio Mahaiak proposatu du, gehiengoz, Karela kiroldegiaren kudeaketa integrala eta Arraunetxeren eta beste antzeko zerbitzu batzuen kudeaketaren kontratua BPXPORT KIROL ZERBITZUAK, SLri adjudikatzea, beren proposamenak betetzen dituelako, orokorrean, lehiaketaren helburuak, baldintza ekonomiko-administratibo partikularren 19. artikuluan ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kirol, Aisialdi eta Gazterriko batzorde informatzaileak 2013ko abenduaren 13an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

**1.- BALIOZKOTZAT JOTZEA** 2013ko abenduaren 4an egindako plikak irekitzeko ekitaldia.

**2.- BEHIN BETIKOZ ADJUDIKATZEA** BPXPORT KIROL ZERBITZUAK, SLri Karela kiroldegiaren kudeaketa integrala eta Arraunetxeren eta beste antzeko zerbitzu batzuen kudeaketaren kontratua; Udalaren urteko ekarpena 200.000 eurokoa izango da; hori guztia, baldintza ekonomiko-administratibo partikularren eta baldintza teknikoen orriaren arabera.

Baldintza administratiboen orrian jasota ez dauden hobekuntza, aldaketa eta proposamenak, adjudikaziodunak egindakoak, jarraipen batzordean aztertuko dira eta han proposatuko dira, egoki bada, horien bideragarritasuna bermatzeko neurriak.

Adjudikaziodunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta behin betiko abala (60.000 eurokoa) eman beharko du hamabost laneguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

**3.- JAKINARAZTEA** erabaki hau prozedura administratibo honetan interesa duten guztiei, aurkez ditzaketen lege errekurtsioak adieraziz.

Emandako botoa azaltzeko, Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela, koherente jokatzeko 2013ko urriaren 31ko udalbatzarrean, lehiaketa honen baldintza-orriak onartu zirenean, egin zituzten adierazpenekin.



### **3.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ETA BEREN ERANSKINEN ALDAKETA, ERAGINA 2014KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Orioko udalbatzarrak honako erabakiak hartu zituen, besteak beste, 2013ko urriaren 31n egindako ohiko bilkuran:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Ordenantza Fiskalen Aldaketari eta bere eranskinei, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, erabaki honen azalpenean jasota dauden terminotan.

**2.- JENDAURREAN JARTZEA** erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, honako arauen arabera:

**a) Ikusgai dauden tokia:** Udaletxeko idazkaritzan.

**b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.

**c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak:** Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

**d) Aurkezteko lekua:** Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

**e) Zein organoren aurrean:** Udalbatzarra.

*Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.*

Espedientea 30 lanegunez egon da jendaurrean, 2013ko azaroaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (211. zenbakian) iragarkia argitaratu ondoren; jendaurreko epea, hortaz, 2013ko azaroaren 7an hasi zen eta abenduaren 12an bukatu zen.

Espedientea jendaurrean egon den denboran erreklamazio bakarra aurkeztu da: Elixabete Zuriarrain Maritxalarrek eta beste 25 lagunek aurkeztutakoa. Erreklamazioa Orioko Danbolin musika eskolaren tarifei buruzkoa da eta sinatzaileek honako hau



eskatzen dute: Aiako bizilagunei ere 1. tarifa aplikatzea, aurreko urteetan bezala; hau da, Orioko bizilagunei aplikatzen zaien tarifa bera aplikatzea Aiakoei ere; horretarako, besteak beste, honako arrazoia ematen dute: zerbitzu publiko bat ematerakoan ezin direla aplikatu tarifa desberdinak erabiltzailearen erroldatze-tokiaren arabera.

Auzitegi Gorenak, 2006ko uztailaren 12an emandako epaian, errefusatu egin zuen zerbitzu publiko baten tarifak onuradunaren erroldatze-tokiaren arabera desberdinak izateko aukera, Espainiako Konstituzioaren 1.1 eta 14. artikuluen kontra doalako (berdintasunaren printzipioa) eta 31.1 artikuluen kontra doalako (zergak); epai horren arabera, tarifa desberdinak aplikatzea erroldatze-tokiaren arabera, legeak aurreikusten ez duen onura fiskal bat sartzeari da. Hori dela-eta, estatuan Toki Ogasunak arautzen dituen legearen testu bateginaren 9.1 artikulua garbi xedatzen du tokiko zergatan onar daitezkeen onura fiskal bakarrak lege maila duten arauetan aurreikusitakoak direla; nahiz eta, tasei dagokienez, tasa ordaindu behar dutenen gaitasun ekonomikoari dagozkion irizpide orokorrak kontuan har daitezkeen, goian aipatutako legearen 24.4 artikulua ezarritakoaren arabera.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa emango diola ordenantza fiskalen aldaketa behin betikoz onartzeari, koherente jokatzeko 2013ko urriaren 31ko udalbatzarrean emandako kontrako botoarekin; hala ere, adierazten du ontzat ematen dutela Elixabete Zurriarain Maritxalarrek eta beste 25 lagunek aurkeztu duten erreklamazioa, honako hau eskatzen duena: Danbolin musika eskolako tarifetan, Aiako bizilagunei ere 1. tarifa aplikatzea, aurreko urteetan bezala; hau da, Orioko bizilagunei aplikatzen zaien tarifa bera aplikatzea Aiakoei ere

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du Aiako Udalak parte hartu beharko lukeela Aian bizi diren ikasleen Danbolin musika eskolako zerbitzu publikoaren kostuak ordaintzen, zeren-eta Aiako Udalak Udal Finantzaziorako Foru Funtzaren dirua jasotzen baitu, besteak beste, herriko biztanle-kopuruaren arabera.

Udal idazkari-kontu-hartzaileak gaiari buruzko txostena eman zuen 2013ko abenduaren 16an.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko abenduaren 17an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Saizar (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Del Hoyo (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

**1.- ONTZAT HARTZEA** Elixabete Zurriarain Maritxalarrek eta beste 25 lagunek aurkeztutako erreklamazioa, honako hau eskatuz: Danbolin musika eskolako Aiako



ikasleei ere 1. tarifa aplikatzea, aurreko urteetan bezala, goian azaldutako arrazoiengatik.

**2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA** ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldatzea, eragina 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena, 2013ko urriaren 31ko udalbatzarrean hartutako erabakiaren termino beretan, honako salbuespenarekin: Danbolin musika eskolako Aiako ikasleei ere 1. tarifa aplikatuko zaie, aurreko urteetan bezala.

**3.- AGINDUA EMATEA** Gipuzkoak Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia jartzeko, ordenantza fiskalen eta beren eranskien aldatetari dagokiona, indarrean sar dadin 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera.

#### **4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 7/2013 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 7/2013 espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 46.787 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko abenduaren 17an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2013ko aurrekontuari dagokion 7/2013 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 46.787 euroko kopurua du.

**2.-** Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

**a) Erakutsita dagoen lekua:** Idazkaritza-kontu-hartzailletza

**b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.





**c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

**d) Inpugnatzeko arrazoiak:** Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

**e) Aurkezteko bulegoa:** Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

**f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

## **5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BILDU UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, SEVILLA II-KO ESPETXEKO EGOERARI BURUZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

### ***Sevilla II-ko espetxeko egoera***

*Etixerat, euskal preso politikoaren senideen elkarte den heinean, behin eta berriz salatu du sakabanaketa politika. Sakabanaketak, euskal presoak euren ingurune sozial, kultural eta afektibotik ehunaka kilometroetara egoteaz gain, bestelako egoerak errazten dituen markoa osatzen duelako: erasoak, isolamendua eta, espetxeraturik dauden pertsonen eragiteaz gain, guri ere, euren senide eta lagunoi eragiten diguten bestelako eskubideen urraketak.*

*Gure Elkarteak azkeneko bi urteetan espetxeetan ematen ari den tentsionamenduaren areagotzea eta espetxeko bizi-baldintzen okertzea salatu du, ETAREN jardueraren bukaeraren berriarekin kointziditu izan duena. Oso kezagarritzat eta larritzat jotzen dugu egoera hau, bai gure senideei eragiten dien heinean, baita jokaera honek azalerarazten dituen interes politikoengatik.*

*Marko honetan kokatzen dugu Sevilla II-ko espetxeko kasu zehatza, zeinek bertan espetxeratuak dauden gure senideak mugagabeko gose greba batera behartu dituena. Gose greba hau, zein espetxean egiten den beste edozein ulergaitza da, ez bada presoek euren burua behartua ikusi dutelako muturreko egoera batean, non aurre egiten saiatzen ari diren arazoan aurrean bestelako konponbideak erabat agortuak daudenean.*





*Sevilla II-ko espetxeko kasuan, duela lau urtetatik hona luzatzen den tentsionamendu baten ondorioz dator. Egoeraren larritasuna handitzearen harira espetxe zuzendaritzarekin izandako elkarriketa eta saiakerek, egoera bera luzatzea besterik ez dute lortu, konponbiderako inongo aurreikuspenik gabe.*

*Haien aldarrikapenak eskubide oinarritzkoenetan oinarritzen dira, berezkoak dituzten eskubide batzuk, baldintzetara edo ordainetara lotu ezinekoa. Espetxea da hain zuzen ere haien segurtasuna, haien osotasun fisikoa, haien osasuna eta dagozkien eskubideak zaindu behar dituen; beraz, erabateko ardura du eskubideen urraketa jarrai eta sistematikoei dagokienez.*

*Nahiz eta egungo legerian zein espetxe-arautegian isolamendua oso egoera zehatzetarako gordetzen den neurri bat izan (bai erregimenari dagokionez, zein zigor neurri bezala), eta mugatua izan behar duen, gure senide eta lagunei bizi-erregimen gisa aplikatzen zaie, mugagabeko iraupena duena.*

*Sevillako espetxean dagoeneko lau urte daramatzate isolamenduan, inongo jarduerarako aukerarik gabe, eta salbuespenezko neurriak biziz. Bi egunetik behin, 26 ordu pasatzen dituzte jarraian ziegan.*

*Aipatutako guztiagatik Orioko Udalbatza honi honako puntu hauekin bat egiteko eskatzen dugu:*

*1.- Espainiako gobernuari sakabanaketa politikaren amaiera eskatzea. Izan ere, sakabanaketak preso bere ingurune sozial, kultural eta afektibotik milaka kilometrotara urruntzeaz gain, erasoak, isolamendua eta bestelako eskubide urraketak ahalbidetzen ditu. Eskubide urraketa hauek presoek eragiteaz gain, senide eta lagunei ere zuzenean eragiten dietelarik.*

*2.- Sevilla II espetxeko zuzendaritzari eta Espainiako Espetxe Erakundeetako idazkari nagusiari bertan dauden beste euskal presoek pairatzen dituzten muturreko bizi-baldintzekin amaitzeko eskatzea.*

*3.- Oinarritzko giza eskubideen errespetua defendatzen dugun heinean, bat egiten dugu presoen eta euren senideen eskaerekin:*

- Mugagabeko isolamenduarekin amaitzea*
- Euskal preso politikoak batera egotea*
- Oinarritzko eskubideak errespetatzea*
- Etengabeko jazarpen eta erasoekin amaitzea*



*4.- Orioko Udalak herritarrei mozio honen berri eman eta giza eskubideen eta bakearen defentsan antolatzen diren dinamiketan parte hartzera gonbidatuko ditu.*

Segidan, udalbatzarrak EAJ udal talde politikoak aurkeztutako mozio alternatiboaren berri jakiten du. Mozio alternatiboak honela dio, hitzez hitz:

## ***EAJ-PNVren UDAL TALDEAK AURKEZTEN DUEN MOZIOA ETAK BORTXAZKO JARDUNA UTZI OSTEKO ESPETXE POLITIKAREN INGURUAN***

*ETAk bortxakeria bertan behera utzi izanak bestelako errealitate soziala definitzen du. Testuinguru honetan espetxe politikak garrantzi berezia hartzen du normalizazio bidean aurrera egiteko elementu den aldetik.*

*Legeriak eta espetxe politikan egingo den arauzko interpretazioak, gure aburuz, honako oinarriei erantzun behar die:*

- Errealitate sozialera egokitzeko printzipioa. Kode Zibilaren 3. artikulua ezartzen du arau juridikoak interpretatuko direla “aplikatu behar diren garaiko errealitate sozialarekin” bat eginik. ETAk bortxazko jarduna bertan behera utzi izanak errealitate sozial berria definitzen du, arauzko interpretazio horrek argitza gomendatzen duena.*
- Normaltasunezko eta ez salbuespenezko printzipioa. Ikuspuntu demokratikotik, salbuespenezko estandarrik ez dira gomendagarriak. Normalizazio eta baketze egoeran, are gomendagarriagoa da zigor eta espetxe normalizazio ereduak aplikatzea.*
- Biktimen duintasuna errespetatzeko printzipioa. Ezin dugu etorkizuna eraiki, iraganean ezer gertatu izan ez balitz bezala. Espetxe politikaren egokitzapena arautu beharra dago, baina giza eskubideen urratze bakoitzaren ostean dagoen ardurak argi eta garbi uztea eta merezi den ordaintzea eragotzi gabe.*
- Normaltasun sozial eta eskuzabaltasun printzipioa. Hainbat hamarkadaren buruan, historiak aurrez aurre uzten digu bakea lortzeko ardua. Egiteko honen balioak normaltasun eta eskuzabaltasun demokratikoa lortzeko ahalegina eskatzen digu denoi, aldi zaharrari atea ixteko eta berria finkatzeko.*

*Bestalde, sakabanatze politika ez da Euskal presoak euren gizarte, kultur, maitasun inguruetatik ehundaka kilometrotara mantentzea bakarrik, baizik eta horren ondorioz bestelako erasoak, isolamendua eta eskubide urraketa marko bat sortzen dela, kartzelaratuak ez ezik, euren familiarterako eta gertukoei ere eragiten dielarik.*

*Ettxerat elkarteak azken bi urtetan, ETAREN ekintza armatuaren etete iragarpenetik, presondegiatako bizi baldintzen okerrera joera eta tentsioaren areagotzea salatu du. Egoera hau oso larritzat eta kezagarritzat jotzen dugu, batetik familientzat*



*eta gertukoentzat dakarrenagatik, eta bestetik agerian uzten dituen interes politikoengatik.*

*Arestian emandako arrazoiengatik guztiengatik, EAJ-PNVren Udal Taldeak Osoko Bilkuran eztabaidatzeko aurkezten du honako*

## MOZIOA

*Orioko Udalak erakunde eskudunei, eta hauen artean Espainiar Gobernuari eskatzen dio, presoak beren ohiko egoitzatik hurbil dauden espetxetara hurbiltzeko prozesua hastea, espetxe legeriak berak hala ezartzen duelako (LOGP legeko 12.1 art.).*

*Orioko Udalak erakunde eskudunei, eta hauen artean Espainiar Gobernuari eskatzen dio, Espetxe Araudiko 104.4 artikuluan ezarritakoa gaixotasun larriak edo sendaezinak dituzten presoek aplikatzea.*

*Orioko Udalak erakunde eskudunei, eta hauen artean Espainiar Gobernuari eskatzen dio, 100.2 artikuluan ezarritakoa aplikatzea, lehen legez kanpoko jotzen ziren baina orain legezko jotzen diren jarduera politikoengatik kondenatuta dauden presoek.*

*Orioko Udalak erakunde eskudunei, eta hauen artean Espainiar Gobernuari eskatzen dio, zuzenbideak hala ezartzen duelako, presoek espetxe araudiaren arabera dagozkien onurak normaltasun eta tratu berdintasunez aplikatzea (Espetxe Araudiko 4.2 artikulua).*

*Orioko Udalak Eusko Legebiltzarrari eskatzen dio ohiz kanpoko espetxe onurak jasotzeko edo gizarteratzeko prozesuak arintzeko baldintzak zehazteko akordioa sustatzea.*

*Orioko Udalak akordio honen berri emango die Eusko Legebiltzarraren Bake eta Elkarbizitza Ponentziari eta Eusko Jaurlaritzako Bake eta Elkarbizitza Idazkaritzari.*

*Orioko Udalak Sevilla IIko kartzelako zuzendaritzari eskatzen dio, bere lanarekin betez, mozio honetan azaltzen diren printzipio gidariak betetzeko eta euskal presoak bizi duten muturreko egoerari, amaiera emateko.*

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu) eta Dorronsororo (Bildu), guztira **BOST ALDEKO BOTO**. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI KONTRAKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



**EZ ONARTZEA** BILDU udal talde politikoak aurkeztutako mozioa, Sevilla II-ko espetxeko egoerari buruz.

Era berean, udalbatzarrak, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ)], guztira **BOST ALDEKO BOTO**. Kontrako botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI KONTRAKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**EZ ONARTZEA** EAJ udal talde politikoak aurkeztutako mozioa, ETak jarduera armatua utzi ondorengo kartzela-politikari buruz.

Emandako botoa azaltzeko, Miriam Uranga lehen alkarteordeak hartzen du hitza, Orain talde politikoaren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela, 2013ko apirilaren 30eko udalbatzarrean azaldutako arrazoiagatik: aurrerantzean edozein taldek aurkeztutako edozein mozioren kontrako botoa emango dutela, uste dutelako mozioen gaiak batzorde informatzaileetan aztertu eta bideratu behar direla.

## **6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BILDU UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA, AIAKO UDALARI BIDERATUTA, DANBOLIN MUSIKA ESKOLAREN FINANTZAZIOARI BURUZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Proposamenak honela dio, hitzez hitz:

### ***Aiako Udalari eskaera***

*Danbolin musika eskolako prezioak Orioko Udalak jartzen ditu: zerbitzuaren kostua ordaindu ahal izateko jartzen da. Administrazio publikoak ezin du kobratu zerbitzuaren kostua baino garestiago.*

*Danbolin Musika Eskolaren kostua hiru diru iturriren bidez ordaintzen da: Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza, Orioko Udalak jartzen duena eta ikasleek ordaintzen dituzten tasak. Eusko jaurlaritzak ematen duen diru-laguntza murrizten ari dira. Urtero, %5 eta %10en tarteko jaitsiera aplikatzen ari da Eusko Jaurlaritza. Ondorioz, Orioko Udala eta ikasleak gehiago ordaintzen ari gara. Eragile bakoitzak kostu osoaren herena ordaintzea da adostutakoa, baina desoreka hori gero eta handiagoa da, udalen eta ikasleen kontrara. Herritar guztien kontrara. 2013ko azaroaren 28an ospatu zen udalbatzarrean Orioko Udalak mozio bat onartu zuen, Eusko Jaurlaritzari, musika eskolen hezkuntza garrantzia azpimarratuz eta finantziazioren gutxieneko %33ra iristeko eskatuz.*



*Orain arte kanpotarrek zerbitzuaren kostu osoa ordaintzen dute eta oriotar eta aiarrek Orioko udalaren laguntza jasotzen dute. Orio eta Aiako ikasleek herena ordaintzen dute laguntza honi esker. Zilegi al da oriotar guztiek Aiako ikasleen herena ordaintzea?*

*Administrazio bakoitzak, bere herritarrei dagozkien kostuak ordaintze aldera zera eskatu nahi dio Orioko Udalak Aiako Udalari:*

*1. Musika eskolaren finantziatorako udalek ordaintzen duten diru zatia ikasleen bizitokiarekiko zuzenki proportzionala izatea, eta horretarako bi Udalen arteko lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea.*

*2. Aiako ikasleei dagokien eta Udalek ordaintzen duten zatiaren %50a gutxienez Aiako udalak ordaintzea eta beste %50a Orioko udalak ordaintzen jarraitzea 2014-2015 ikasturteetik aurrera.*

*Eskaera idatzia gera dadin eta bere eragina izan dezan.*

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoa bat datorrela proposamenaren funtsarekin, baina ez erabilitako formarekin, iruditzen zaiolako garrantzitsua dela, beste ezeren aurretik, harmonia onean aritzea erakundeen artean, eta horrelako eztabaidak bi herrietako alkateen artean konpontzea, giza-legez, orain arte bezala. Hortaz, adierazten du bere talde politikoak aldeko botoa emango diola proposamena onartzeari.

Jon Agirresarobe zinegotziak (Bildu) hartzen du hitza eta, Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Festetako batzordearen buru denez, honako hau adierazten du:

- Egin direla bilerak bi herrietako alkateen artean, eta giro onean egin direla.

- Zuzena litzatekeela Aiako Udalak bere gain hartzea Danbolin musika eskolan matrikulatuta dauden Aiako ikasleen kostuaren portzentaje bat, kontuan hartuta Gipuzkoako Foru Aldundiak zerga kontzertatuetako partizipazioa ordaintzeko erabiltzen duen irizpideetako bat, hain zuzen ere, herriaren biztanle-kopurua dela; hau da, zenbat lagun dauden udal erroldan.

Alkateak guztiz berresten du Jon Agirresarobek adierazitakoa.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ)], guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **BI KONTRAKO BOTO**]:



**ONARTZEA** BILDU udal talde politikoak aurkeztutako proposamena, Aiako Udalari bideratuta, Danbolin Musika Eskolaren finantzazioari buruz, goian jasota dagoen bezalaxe.

Emandako botoa azaltzeko, Miriam Uranga lehen alkarteordeak hartzen du hitza, Orain talde politikoaren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela, 2013ko apirilaren 30eko udalbatzarrean azaldutako arrazoiatatik: aurrerantzean edozein taldek aurkeztutako edozein mozioren kontrako botoa emango dutela, uste dutelako mozioen gaiak batzorde informatzaileetan aztertu eta bideratu behar direla.

## 7.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Cristina Salsamendi oriotarrak hartzen du hitza eta adierazten du Orioko Udalari doantza eman nahi diola bere aita zendu berriak, Jose Ramon Salsamendik, pintatutako koadro bat (Orioko ikuspegi bat, 1952koa). Udalbatzarrak **AHO BATEZ** onartzen du doantza [**HAMABI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz] eta eskerrak ematen dizkio, bihotzez, Salsamendi-Aiestaran familiari.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**